

EUROPAKO HAUTESKUNDEEN PROGRAMA

EUSKADI

BAT EGINIK *EUROPAN ERE*



EAJ-PNV.EUS



› AURKIBIDEA

EUROPAKO HAUTESKUNDEEN PROGRAMA	4. OR.
PERTSONEN ETA PERTSONENTZAKO EUROPA. EUROPA GEHIAGO. SOZIALAGOA	6. OR.
ASKATASUNA, BABESA ETA AURRERAPENA EZDEUSAREN AURREAN	7. OR.
1.- DEMOKRATIKOA, SOLIDARIOA, BERDEA ETA HUMANISTA	7. OR.
1.1.- GURE DEMOKRAZIAREN ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK ETA KALITATEA BERMATZEN DITUENA	7. OR.
1.2.- ASILO-LURRALDEA	8. OR.
1.3.- GARAPENA ETA EGONKORTASUNA SORTZEKO KOOPERAZIO-ERAGILEA, MILIOIKA PERTSONEN NAHITAEZKO ERBESTERATZEAREKIN AMAITUKO DUENA	9. OR.
1.4.- KLIMA-ALDAKETAREKIN KONPROMISOA DUENA	9. OR.
2.- GIZARTE-GARAPENA DUEN GARAPEN EKONOMIKOAN OINARRITUA	10. OR.
2.1.- TALENTUAN, EZAGUTZAN ETA BERRIKUNTZAN OINARRITUTAKO EKONOMIA PRODUKTIBOAREN ALDEKO APUSTUA EGINGO DUENA	11. OR.
2.2.- ENPLEGUA ESKUBIDEEKIN. OSASUNA, PENTSIOAK ETA HEZKUNTZA BERMATUZ	12. OR.
2.3.- IRAULTZA DIGITALA APROBETXATZEKO PRESTAKUNTZA	13. OR.
3.- FEDERALA, ANITZA ETA HERRITARRENGANDIK HURBIL DAGOENA	14. OR.
3.1.- GARDENTASUNEAN ETA PARTE-HARTZEAN OINARRITZEN DEN MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA DUENA	14. OR.
3.2.- EREDU FEDERAL BATERANTZ DOANA, EUROPAKO DIBERTSITATE NAZIONAL, INSTITUZIONAL ETA KULTURAL GUZTIAK GOGOZ BARNE HARTZEN DITUENA	15. OR.
4.- POPULISMOAREN, DEMAGOGIAREN ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO ANTIDOTOA	16. OR.
4.1.- HERRITARRENTZAKO ERABILGARRIA. IRTENBIDE SOILAK, DAGOENEKO EZAGUTZEN DIRENAK ETA ARAZO KONPLEXUAK KONPONTZEKO PORROT EGIN DUTENAK SALTZEN DITUEN POPULISMOAREN AURKAKO BAKUNA	16. OR.
4.2.- GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIORIK EZAREN LURRALDEA	17. OR.
EUROPAN ZUK ERE MUGIARAZTEN GAITUZU	18. OR.

› EUROPAKO HAUTESKUNDEEN PROGRAMA

Europar Batasuna bakearen eta aurrerapenaren proiektu bat da, eta EAJ-PNVk proiektu horri lagundu dio sortu zenetik. Euzko Alderdi Jeltzaleak Europako naziotasunen kongresuan parte hartu zuen 1917an Lausanan, eta 1933ko Aberri Eguna "Euskadi-Europa" goiburuekin egin zuen. 1939an, "Herrien Europa" ideia sortu zuen, Europar Batasunaren egungo lemarekin, alegia, "aniztasunean batuta" lemarekin bat egiten duenak; eta 1940 hamarkadan eragile aktiboa izan zen nazioarteko talde berrietan, Europako Demokrazia Kristauaren kide sortzailea izan zen, eta Hagako Kongresuan parte hartu zuen eta ekarpenak egin zituen. Diktaduran zehar, gainera, Europako Mugimenduaren kidea izan zen, eta Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federala sortu zuen, errepublikano erbesteratuen indarrak bateratuz. Ibilbide luzeko konpromisoa mantentzen du ekimen horrekin. Izan ere, gaur, inoiz baino gehiago, behar duen integrazio federalean sakondu behar du, Europako herritarrentzako erabilgarria izaten jarraitzeko.

Gure Europar Batasuna erreferentziazko espazio bihurtu da munduan, demokrazia, askatasunak eta gizarte-justiziarri dagokionez. Izan ere, honako hauek egiteko gai izan da:

- › Europako eta munduko herritarren artean hainbat hamarkadako borrokak sortu zituzten kontzeptu politikoak berritzea. Prozesua aurrera eramateko konpromiso negoziatzina hartu zen funtsezko eskubideekin, askatasunekin eta demokraziarekin.
- › Ekonomia erreala sustatzeko mekanismo eraginkorrak eraikitzea eta aberastasunaren birbanaketa ahalbidezea.
- › Dibertsitatea batasun- eta garapen-faktore bihurtzea, pertsonengan eta haien ezagutzan oinarriturik.

Hiru printzipio horiek IAEEren jatorrian mantendu ziren, eta Erromako Tratatuen oinarri dira. Irtenbide erabilgarria sortu zuten European liskar berriak izatearen arriskuarekin amaitzeko, eta printzipio horiek Europar Batasunaren eboluzio positibo bakoitzean hautematen dira.



Epe laburrean aritu beharrak urruntzen gaitu soilik funtsezko balio horiengandik, eta orduan, arrakastaren ideia horrek arrakasta izaten jarrai dezan behar ditugun eboluzioak atzeratzen edo zapuzten dira, aldaketa izugarri handiei aurre egin behar dien mundu honetan.

- Azkeneko hamarkadetan, ekonomia globalizatu egin da, eta garapen teknologikoak hainbat produktu eta zerbitzu berri sortzeko aukera eman du, baita ekintzailtza eredu berriak eta aukera berriak ere, digitalizazioari esker. Errealitate hori merkatua eta lan-harremanak ari da aldatzen, lanbideak eta profesioak ari da eraldatzen, eta orain dela hamarkada bat imajinatu ere ez genituen beste lanbide batzuk ari da sortzen.
- Globalizazioari esker, argi eta garbi ikusi dugu baliabide mugatuak dituen planeta batean bizi garela, bizigarria izango dena soilik baldin eta modu jasangarrian kudeatzen badugu. Izan ere, gaur arte ezagututako hazkunde-ereduak, hau da, mugikortasunari, energia-hornidurari edo era guztietako ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenari ezarri diegun irtenbideak erabat aldatu behar dira. Hori eginez gero, klima-aldaketa gelditzeko gai izango gara; bestela, planetako toki askotan bizitzea ezinezkoa izango da.
- Prozesu horiek ez dira modu sinkronikoan garatzen bere historiaren ondorioa den planeta honetan. Munduak hainbat garapen mailako espazioen arabera banatuta jarraitzen du, iragan hurbileko zaurietatik odola dario, kolonialismoak eremu garatuenen eta ahulenen arteko harremanen izaera eta kalitatea markatu baitzuen. Errealitate horretan aurkitzen dira egun desberdintasuna elikatzen jarraitzen duten gatazka askoren arazoak; izan ere, gatazka horiek gizateriaren historian inoiz erregistratu diren pertsona-mugimendu handienak sortu dituzten eskualde batzuen garapen harmonikoa oztopatzen dute.

Herritarrek, instituzioek, erakundeek, eragile sozialek edo enpresek egunero aurre egin behar dien arazoak aldaketa-prozesu horiekin loturik daude, ziurgabetasun handiak sortzen dituztenak beren sakontasunagatik, abiaduragatik eta inplikazioengatik. Eta ziurgabetasunaren, beldurraren eta araurik gabeko globalizazio baten mailako erantzun bat behar dute, krisialdi finantzarioari emandako erantzun eskasaren edo zenbait estatuk errefuxiatuen krisialdiari aurre egin dioten moduak herritarrengan sortu duen egoismoaren mailakoa. Marka berriko alderdiek eskrupulurik gabe ustiari dute sentimendu hori, eta ideologia muturrekoak, zaharrak eta porrot egin zutenak Europan daude jada.

Europar Batasunaren etsaiekin lotutako indarrak dira, konponbide soilak eta hutsalak ematen dizutenak arazo konplexuen aurrean. Erakunde horien helburua benetako soluzioarekin amaitzea da, hau da: gure Europar Batasunarekin eta bere sortze-balioekin.

Brexita irtenbide soilak arazo konplexuei ematen dieten emaitzen adibidea da. Erresuma Batuko milioika herritar konturatu dira orain Europar Batasunetik ateratzeko erabakia gezurren, faltsukerien eta argudio demagogikoen arabera hartu zutela. Orain, erabaki horren benetako irismena zein den ikusi denean, erabaki hori sortu zutenak ere ez dira erabaki hori gauzatzeko. Jarrera arduragabe horrek sortutako ziurgabetasuna, lehenik, Erresuma Batuko herritarrek ordaintzen dute, eta gainera, baita europar guztiek ere.

Izan ere, Erresuma Batutik ateratzeko prestakundeek milaka lan-ordu bete dituzte erkidegoko erakundeetan, prozesu horri aurre egitean Erresuma Batuko negoziatzaileek baino jarrera eta sendotasun askoz ere handiagoa izan dutenek. Guk Batasunaren jarreraren lerro nagusienekin bat egin dugu, zeinaren helburua izan baita eragindako herritarren eskubideei lehentasuna ematea; bakearen eta bizikidetzaren aldeko ondarea zaintzea, arriskuan jar badaiteke baldin eta Irlandan berriz ere muga bat ezartzen bada; eta kontingentzia-planak ezartzea, eragile ekonomikoek kalterik ez egiteko.

Brexitak sortu zuen arduragabetasun bera da zenbait estatu-kideetako lider politiko batzuen jokabidearen ezaugarri, gehiegi ohitu baitira arrakastak "nazionalizatzen" eta Bruselari beren porroten errua botatzen. Lan egiteko modu horrek ere gaitzuste eta urruntasuna sortu du europarrek erakundeek begiratzen dieten moduaren gainean. Egoera hori gero eta larriagoa da, ez baitago Europar Batasuneko bilakaera garrantzitsuenen bereizgarri izan ziren liderren parekorik gaur Europan.

Lan egiteko modu horren aurrean, berriz ere, berrikuntza ekonomikoa eta politikoa, demokrazia eta justizia soziala, eta munduaren bereizgarri den dibertsitate sortzailea izan behar dira gure erantzunen mugarriak. Balio horiek ezartzen dituzten lan-ildotik urruntzen garenean edo sakontasunarekin eta koherentziarekin ezartzen ez ditugunean, pertsonengandik urruntzen gara, eta horiek dira ekintza politikoaren helburua. Horregatik, Europa Solidario baten aldeko Koalizio hau osatu dugu, zeinaren helburua baita balio horiek gure ekintza politikoan aldarrikatzea eta ezartzea. Horregatik, honako hauen aldeko apustua egiten dugu:

› PERTSONEN ETA PERTSONENTZAKO EUROPA. EUROPA GEHIAGO. SOZIALAGOA

Europa federalagoa, integratuagoa, sozialagoa. Pertsonak dituen ardatz. Diskriminazioarekin eta desberdintasunarekin bateraezina. Giza eskubideak eta askatasunak bermatzen dituena. Pertsonen, identitateen, instituzioen, hizkuntzen eta kulturen borondatezko batuketan oinarritzen dena. Ezagutzan oinarritutako garapen jasangarriarekin konpromisoa duena. Ekonomia zirkularraren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren liderra dena. Abegitsua, solidarioa, kooperatzailea.

1.- DEMOKRATIKOA, SOLIDARIOA, BERDEA ETA HUMANISTA

Gure demokraziaren eskubideak eta askatasunak eta kalitatea bermatzen dituena. Asilo-lurraldea. Garapena eta egonkortasuna sortzeko kooperazio-eragilea, milioika pertsonen nahitaezko erbesteratzearekin amaituko duena. Klima-aldaketarekin konpromisoa duena.

2.- GIZARTE-GARAPENA DUEN GARAPEN EKONOMIKOAN OINARRITUA

Talentuan, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia produktiboaren aldeko apustua egingo duena. Enplegua eskubideekin. Osasuna, pentsioak eta hezkuntza bermatuz. Iraultza digitala aprobeztatzeko prestakuntza.

3.- FEDERALA, ANITZA ETA HERRITARRENGANDIK HURBIL DAGOENA

Gardentasunean eta parte-hartzean oinarritzen den maila anitzeko gobernantza duena. Eredu federal baten biderantz doana, Europako dibertsitate nazional, instituzional eta kultural guztiak gogoz barne hartzen duena.

4.- POPULISMOAREN, DEMAGOGIAREN ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO ANTIDOTOA

Herritarrentzako erabilgarria. Irtenbide soilak, dagoeneko ezagutzen direnak eta arazo konplexuak konpontzeko porrot egin dutenak saltzen dituen populismoaren aurkako bakuna. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren lurraldea.



➤ ASKATASUNA, BABESA ETA AURRERAPENA EZDEUSAREN AURREAN

Proposamen horiek irtenbide konpromisozkoak, konplexuak, kolektiboak, arduratsuak, berdinzaleak eta solidarioak planteatzen dituzte Europako proiektua indartzeko. Soiltasunak, demagogiak, mugak berrezartzeak eta banaketek ez dute balio klima-aldaketa gelditzeko, gure krisialdi demografikoa konpontzeko, errefuxiatuak hartzeko edo mundu mailako terrorismoak gure segurtasunaren aurka planteatzen dituen mehatxuak konpontzeko.

Aitzitik, erantzun landuak, konplexuak eta herritarren sinismenean eta atxikipen askean oinarritutako erantzunak behar ditugu, herritarrek sentitu dezaten gure ekintza politikoaren ardatza direla. Euroaren abantailaz disfrutatu dugu; baina diru bakarrak funtzionatzen duen espazio baten berezko tresnak hobetu ditzakegu eta behar ditugu. Gabezia horiek gure politika ekonomikoak modu egokian koordinatzea eta unerik zailenetan bazkideen artean elkartasuna izatea galarratzen digute.

Ez gara gai partekatutako irtenbideak antolatzen migrazioaren krisialdiaren aurrean, edo espazio ekonomiko desarautuek planteatzen dizkiguten dumping sozialaren edo ingurumenekoaren mehatxuen aurrean. Lanean jarraitu behar dugu estatu-kideen ogasunek beren artean borrokatzea saihesteko, eta horrela, Europako altxortegi publikoen gaitasun finantzarioa eta krisialdiei aurre egiteko politika birbanatzaileak edo ziklo-kontrakoak finantzatzeko baliabide erabilgarriak murriztu ez ditzaten.

Gainera, babes sozialeko espazio bat behar dugu Europar Batasunean, estandar minimo batzuk izango dituen. Hezkuntza-eskaintzaren benetako iraultza bat behar dugu, ekonomia digitalak exijitzen duen ezagutzetara egokitutako prestakuntzak eskaintzeko eta ekonomia zirkularra behin betiko abiarazteko. Proposamen ausarta eta kementsua eraiki behar da, Afrikaren garapenean benetan lankidetzan aritzeko, eta defentsa- edo segurtasun-tresna berriak inplementatu behar ditugu.

Horiek dira ziurgabetasuna benetan argitu dezaketen eta aukera irmoa, sinesgarria eta eraginkorra eskaini dezaketen neurrietako batzuk estremismoaren seinaleen aurrean, helburu nagusia gure Europar Batasunarekin amaitzea baitu. Izan ere, estremismoaren proposamenen ardatza espazio jakin batzuetan eta edozer preziotan boterea eskuratzea da, eta proposamen horiek gure kontinentean sobera ezaguna den paisaia batera eraman gaitzake, hau da, enfrontamenduaren eta suntsipenaren paisaiara.

Horiek martxan jartzeko, erkidegoko erakundeak erabat berri behar dira. Berrindartu egin behar dira, estatu-kideen ekarpen finantzarioen menpekotasuna murriztu behar zaie, eta "balio erantsi" europarraren bultzatzaileak, interpreteak eta defendatzaileak bihurtu behar dira. Kontzeptu horren bidez, egun Urte anitzeko finantza-esparruaren negoziazioak eraentzen dituen "bidezko itzulera"-ren logika hautsi nahi da.

Azkenik, Europar Batasunaren egonkortasun finantzarioa finkatzen ari direnen antzeko mekanismoak jarri behar ditugu martxan, alderdi populista horiek zuzenbide-estatuaren, demokraziaren eta askatasunaren aurka planteatzen dituzten mehatxu sistemikoei aurre egiteko. Herritarrek erabakitze-prozesuetara hurbildu behar dira. Energiaren merkatuaren, eta merkatu finantzarioaren eta digitalaren batasuna osatu behar da. Gure Europar Batasuna berrindustrializatu behar dugu, bere ekonomia deskarbonizatzen, eta mugikortasunaren sistema integratu bat eraikitzen eta kontsumoko beste ohitura batzuk, iraunkoragoak, sustatzeko.

Azken finean, asko dago egiteke.

Testuinguru horretan, eragile aktibok, kaudimendunok, ekimendunok, Europako kultura-, erakunde- eta ekonomia-dibertsitatearen ordezkariok, eta kontinentean eta eskualde ultra-periferikoetako batean ezarrita gaudenok Europa Solidario baten aldeko Koalizio hau osatu dugu. Gure herritarrek Europaren berrezarpen-prozesu horretan esku hartu dezakete, esku hartu behar dute eta esku hartzeko premia dute. Europa federal batean benetan sinesten badugu, mugak inoiz kudeatu ez dituzten gizarte-mota horiek egoera ezin hobea dute behar dugun berrikuntza politikoa, instituzionala, programatikoa eta praktikoa sustatzeko. Horrela, behetik, hurbiltasunetik, pertsonengan arduzatu den Europa bat eraiki ahal da, pertsonen talentuan oinarrituko dena, gardena, parte-hartzailea, demokratikoa, anitza, berdea eta solidarioa izango dena. Espazio horretan, gehitu, ekarpenak egin, proposamenak egin eta lidergoa hartu behar dugu.

Horren alde lan egitea eskaintzen dugu, honako proposamen hauekin:

1.- DEMOKRATIKOA, SOLIDARIOA, BERDEA ETA HUMANISTA

1.1.- Gure demokraziaren eskubideak eta askatasunak eta kalitatea bermatzen dituenak

Europa irekiagoa eta demokratikagoa sustatzea Batzordearen helburuetako bat izan da legegintzaldi honetan. Bultzat-

da sendo bat behar du herritarrek erabakitze-prozesuetara hurbiltzeko. Hori lortzeko, parte-hartzea suspertu, erabaki hobeak eta informatuagoak hartzeko herritarrek duten eza-gutza mobilizatu eta aintzatetsi eta etengabeko elkarrizketa ahalbidetu daitezke. Hortaz, Europako erakundeak erabat eraberritu beharko lirarteke, eta honako hauek jaso:

- › Europako Parlamentuaren zeregina berrindatu, herritarrek zuzenean aukeratutako erakunde moduan. Koerabakitasuna eta ekimen legegintzagilea. Dibertsitate instituzional, kultural eta linguistiko guztiaren ordezkartza izatea bermatuko duen hauteskunde-legedia baten aldeko apustua egiten dugu.
- › Estatu plurinazionalaletan errealtate hori islatuko duten hauteskunde-barrutiak izatea.
- › Talde politiko bakoitzak Europako Batzordeko presidenten izateko hautagai moduan aurkezten duen pertsonarekin zuzendutako zerrenda transnazionalak izatea.
- › Europako Batzordearen egitura funtzionalago bat proposatzen dugu, komisarioaren elkargo ofizial murriztagoaren eta kide bakoitzari esleituko zaizkion funtzioekin loturik. Eraginkortasun-parametroen aldeko apustua egiten dugu, eta naziotasun-parametroen aldekoa.
- › Kontseiluko aho batekotasunaren arauarekin amaitzea.
- › Aurrekontu gehiagoko Europako Batzorde bat nahi dugu, alegia, Europako BPGd-aren % 2 eta diru-sarrera propioak izango dituen, finantza-transakzioen edo ingurumenaren gaineko tasengandik jasoko direnak, eta noizean behin Europako Banku Zentralaren onurengandik eta beste iturri batzuegandik jasoko direnak, eta europar balio erantsia emango duten jarduerak sustatzeko benetako gaitasuna izango duena.
- › Euroaren Komisarioa sortzea, Eurotaldearen presidenten eta Gai Ekonomikoen Komisarioaren funtzioen ardura hartuko duena. Euroaren zuzendaritza ekonomiko bat izatea, eta EBZari bere zeregin instrumentala itzultzea.
- › Jarrera fiskal bateratua izatea gidalerro ekonomikoetan, egonkortasun fiskaleko tresnekin osatua, eta ez bakarrik tresna finantzarioekin. Batzordeak proposatutako eta Parlamentuak onartutako aurrekontuaren programazio ekonomikoaren helburuak izatea.
- › Euro-gunearen altxortegi bat pixkanaka-pixkanaka ezartzea, Europako bonuak pixkanaka igortzen joanez.
- › Bankuen batasuna osatzea, Europako gordailuen berme-funts bat eta Europako egonkortasun-mekanismo

bat barne hartuz Batzordearen erantzukizunaren menpe, 500.000 milioiko zuzkidura izango duenak balizko krisialdi finantzario berrien ondorioei aurre egiteko.

- › Gizonek eta emakumeek erakundeetan eta erkidegoko agentzietan presentzia orekatua izatea bermatuko duten neurriak ezartzearen aldeko apustua egiten dugu.
- › Gure ustez, Europar Batasun osoan zuzenbide-estatuaren kalitatea kontrolatuko duen mekanismo eraginkor bat ezartzeko presazko premia dago, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren urraketa goriaren aurrean eraginkortasunez esku hartuko duena, nahiz eta gutun hori erkidegoko legeria gauzatzeko sortu ez zen. Goiz detektatzeko, prebenitzeko eta zehatzeko mekanismoak ezartzea. Botere-banaketa objektiboki kontrolatzea, bereziki Estatu-kideen independentzia judiziala.
- › Gizarte zibilaren parte-hartzea bultzatzea erkidegoko erabakitze-prozesuetan. Europako herritarren ekimena bultzatzea eta informazio eta parte-hartze programa praktiboak martxan jartzea, kontsulta publikoen sistema eta egun Europako Batzordeak sustatzen eta kudeatzen duen gardentasun-erregistroa aberasteko eta zabaltzeko.
- › Europar Batasuneko kanpoko zerbitzua garatzea, Europak gatazken aurrean ahots propioa eta bakarra izatea ahalbidetuko duena eta gure batasuna bake-eragile eta gatazka konpontzaile moduan ziurtatuko duena, bitartekaritza eginez eta jarrera konstruktiboak babestuz.

1.2.- Asilo-lurraldea

Gatazkak, ezegonkortasun politikoa, pobrezia eta munduko zenbait gunetan klima-aldaketa sortzen ari den ondorioek pertsonen mugimendu handia sortu dute, historian aurrekaririk ez duenak. Europak erronka horren aurrean erantzun bateratua arbitratu behar du. Erantzun hori balio tradizionalaletan, asiloaren nazioarteko legeria betetzean eta apustu adimentsu batean oinarritu behar da, egoera hori kontinente zahartu honentzako aukera bihurtu dadin, eremu askok despopulatzearen mehatxua baitute.

- › Asiloaren politika komun baten aldeko apustua egiten dugu, bisa humanitarioen sistema bat martxan jarri dezan, korridore humanitarioak sustatu ditzan, eta pertsonen trafikoko mafiei aurre egin diezaien, praktika horien prebentzioa eginez eta mafia horien kideei errepresioa ezarritz.
- › Nazioarteko babesa behar duten pertsonak Europar Batasunean berrezartzeko politikak. Arreta berezia eman lagundu gabeko adingabekoei.

- › Tokiko eskualdeak eta agintaritzak integrazio- eta harre-
ra-politiken ezarpenean txertatzea. “Europar berriek” ja-
sotzen dituzten zerbitzuak erakunde maila horien bidez
ematen dira orokorrean. Integrazioa eremu horretan sor-
tzen eta kudeatzen da. Horregatik, bisen kudeaketaren
eta mugen kontrolaren erantzuleak bakarka hartu ezin
dituzten erabakiak ikuspegi horrekin osatu behar dira.
- › Harreraren erantzukizuna partekatzeke sistema bat ezar-
tzea, lurralde-eremu bakoitzaren diru-sarrera fiskalen,
biztanleriaren eta langabeziaren arabera. Zehapen era-
ginkorren politika izatea, beren betebeharrak betetzen
ez dituztenentzat.
- › Estatu-kideekin hustutako Europako eremuak birpopu-
latzeko plan bat artikulatzea eta ko-finantzatzea, eremu
horiek suspertzeko, kultura arteko mestizajea eta biziki-
detza sustatzeko, basoberritzearekin lotutako eremu ber-
deak agertzea bultzatzeko, ingurumena zaintzeko, neka-
zaritza-ekoizpen jasangarriak eta kalitatezkoak izateko
eta balio erantsi handiko zerbitzuak emateko.
- › Europar Batasuneko kanpoko mugak kontrolatzeko siste-
ma bateratua eta partekatua izatea, harrera-politika hori
pertsonek mugimenduaren kudeaketa ordenatu batekin
bateratzeko.
- › aprobetxatuz, diplomazia ekonomikorako, kulturalerako,
klimatikorako edo energetikorako ekintzak sustatze alde-
ra.
- › Europako enpresek giza eskubideak, eskubide sozialak
eta ingurumen-eskubideak beren hornidura-kate guztian
errespetatzen dituztela bermatzeko legeria. Ekonomia
solidarioa eta bidezko merkataritza sustatzea.
- › Printzipio horiek txertatzea Europar Batasunak hirugarren
herrialdeekin sustatzen dituen merkataritza, arrantza edo
beste edozer mailako akordioetan. Prozesu negoziatza-
learen gardentasuna sakontzea, eta neurrigabeko prak-
tiken, pertsonen eta baliabide naturalen esplotazioaren,
lan-baldintza duingabeen, desberdintasunaren edo en-
presen balio korporatiboaren arteko desberdintasuna-
ren aurkako zehapen-mekanismo eraginkorrak ezartzea,
beren jarduera garatzen duten lurraldearen arabera.
- › Lankidetzaren ereduak sustatzea, lurralde-ikuspegia lehe-
nesteko eta 2030 agendarekin konpromisoa hartzeko,
Garapen Iraunkorreko Helburuak lortze aldera. Eragiketa
horiek tokiko eta eskualdeko agintariei eta gizarte zibilari
irekitzea, politika publikoek koherentzia handiagoa izan
dezaten eta maila anitzeko benetako gobernantza izan
dadin.

1.3.- Garapena eta egonkortasuna sortzeko kooperazio- eragilea, milioika pertsonen nahitazko erbesteratzearekin amaituko duena

Europar Batasunak pertsonen mugimendu horien inguruan hartzen duen jarrerak beste lan-ildo bat txertatu behar du jatorrizko herrialdeetan. Garapen jasangarri bat txertatzea, berekin balioengan oinarritutako merkataritza-harreman bidezkoak izatea, egonkortasun geo-politikoari laguntzea, eta emakumeak ahalduzkoak dira Batasunak eremu horretan gauzatzen duen jarduera gidatu behar duten hainbat ardatz.

- › Afrikar Batasunarekin elkartzeko eta lankidetzan aritzeko lehentasunezko plan berezi bat proposatzen dugu, ga-
tazken, klima-aldaketaren eta beste hainbat egoeraren
ondorioz zehatutako eremuetan garapen-aukerak ahal-
bidetzeko, jarduera ekonomikoak babesteko dituztenak,
baita egonkortasun politikoa eta soziala ere.
- › Lankidetzaren politikak planetaren gaineko tokietan berrin-
dartzeko parametroen arabera. Lankidetzaren des-
zentralizatua eta boluntarioritza babestea. Elkartasunaren
Europako Indarra sustatzea, baita lankidetzaren eta esku-
hartze eragile moduan ere, Europar Batasuneko muge-
tatik kanpoko katastrofe eta hondamendi naturalen au-
rrean.
- › Eskualdeen potentziala aprobetxatzea EBren kanpoko
proiekzioan, haien esperientzia, ezagutza eta gaitasunak

1.4.- Klima-aldaketarekin konpromisoa duena

Parisko Gailurrean hartutako konpromisoekin koherenteak izatea ez da aukera bat, obligazio bat da. Gizakiaren jardura kliman eta planetaren biodibertsitatean sortzen ari den al-
daketen atzeraezintasunaren gaineko hamar alerta-adieraz-
leetako hiru gorriak dira jada. Erregai fosilen energia-men-
pekotasuna erabat aldatu behar dugu, baita gure bizi- eta
kontsumo-ohiturak ere; horrela leheneratuko dugu soilik
egoera. Trantsizio hori, gainera, industriarekin egin daiteke
soilik, ez industriaren aurka.



- › Pizgarrien politika bat aldarrikatzen dugu, produkzio eta kontsumo berritzaileen eta eraginkorren ereduak ahalbidetuko duen "fiskalitate berdea"-ren bidea sakonduz. Trantsizio ekologikoa babestuko duten eta bere kostu sozialak gutxituko dituzten finantziario-tresnak behar dira.
- › Berotegi-efektuko gas-isurpenentzako prezioa gardentasunarekin finkatu behar da, enpresek energia-iturri garbien aldeko trantsizio eraginkorra sustatu dezaten eta politika aktiboak bultzatu daitezten, hala nola basogintza, karbono-isurpenen sarbegi aktiboak sortze aldera.
- › Inbertsio estrategikoen Europako plana izatea hainbat sektoretan, esaterako, ekonomia urdinean eta karbono baxukoan, tresna fiskalak eta inbertsio-bolumenetara egokitutako finantziario- eta berme-tresnak bateratuz; horrela, eskualdeko edo izaera esperimentaleko ekin-tzailatzak ahalbidetuko lirateke, eta Inbertsioen Europako Bankuaren programak eskuratu.
- › Suspertzen ari diren energia-sektoreak babestea, non Europa munduko lider moduan posizionatu daitekeen, esaterako, itsasoko energia berriztagarria, energia eolikoa, eta bereziki, bateriak eta biltegitratzeko beste hainbat teknologia. Gai horietan espezializatutako Europako eskualdeetan existitzen diren ezagutza- eta erakusketa-azpiegiturak konektatzea.
- › COP21ean estatuek hartutako konpromisoak betetzen direla jarraitzeko mekanismo global eta eraginkor bat ezartzea.
- › Ekonomia zirkularra, lanbide-heziketa eta lanbide-heziketa hori ahalbidetzen duen teknika eta ahalbidetuko duen jarrera zibikoa eta soziala irmoki babestea, berrera-bilpena eta birziklapena sustatuz.
- › Konpromisoak betetzearen gaineko kontrol gehiago ezartzea hondakinak kudeatzeko gaietan. Erabilera bakarreko plastikozko tresnak mugatzearen gaineko lege-gintza-paketean ezarritako neurriak txertatzea.
- › Europako mugikortasunaren sistema integratu bat sortzea babestea, garraioa deskarbonizatzen laguntzeko, garraio-bideak modu eraginkorragoan konbinatuz eta deskarbonizazioaren lehentasunak ezarri; horretarako, lehenik, hiri-mugikortasunari ekingo zaio eta IKTek aldatzea hori kudeatzeko eskaintzen dizuten aukerak biziki aplikatuko dira.
- › Hiri-mugikortasunaren ohitura jasangarriak sustatuko dira, tokiko agintaritzekin lankidetzan. Mugikortasun-laborategiak sortzea tokiko agintaritzaren mailan. Praktikak onak trukatzeko sistema egituratu bat finkatzea.
- › Lehentasunezko obrak gauzatzea Europa barneko garraioaren sareetan, arreta berezia emanez intermodalitatea sustatzen dutenei eta mugaz haraindiko konexioetan eta eremuetan itoguneak konpontzen dituztenei. "Europa Konektatu" mekanismoa modu eraginkorrean erabiltzea, estatu-kideek lehentasun horiei arreta egokia ematea bultzatzeko.
- › Itsasoko autobideak eta merkataritza- eta arrantza-ontziaren deskarbonizazioa sustatzea, horretarako laguntza bereziki. Ingurumen-baldintza horiek betetzen ez dituzten ontziak Europako portuetan sartzea mugatzea pixkanaka-pixkanaka.
- › Trenbideen elkarreragingarritasuna sustatzea, Europar Batasunean garraio-bide horretan mugitzen diren salgaien kuota handitzeko.
- › Politika argia, egonkorra eta partekatua izatea Energiaren Batasuna eskuratzeko. Energia berriztagarriak eta sortze deszentralizatuak babestea.
- › Energia-eremuan espezializatutako lurraldeen artean eskualde-arteko lankidetzak ahalbidetzea, errealitatera egokitutako araudi- eta finantza-esparru baten bidez, ekipamendu-ondasunen fabrikazioaren, instalazioaren, energia-azpiegituren mantentze-lanen, energia berriztagarriak biltegitratzearen edo ekoiztearen eta banatzearen inguruko balio-kateak sortze aldera.

2.- GIZARTE-GARAPENA DUEN GARAPEN EKONOMIKOAN OINARRITUA

Justizia soziala demokraziaren oinarrietako bat da. Desparrekotasuna, desberdintasunak eta marjinazioa gizarte batean instalatzen direnean, tentsioak eta ezegonkortasuna agertzen dira. Izan ere, arazo horiek pertsonen askatasunari eta bizi-kalitateari eragiten diete. Pertsonak duintasunarekin bizitzeko duten eskubideari, arrakastarekin gozatzeko eta porrota gainditzeko duten gaitasunari. Beren autonomia pertsonalari. Horregatik, Europako proiektuak hasieratik txertatu zuen bektore sozial hori. Horrek esan nahi du aurrerapen ekonomikoa aurrerapen sozialarekin lotzen dela.

Ikuspen horren sustatzaileetako bat Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakari José Antonio Agirre izan zen, sinesmen humanista sakonak zituena, gai horiek Hagako Kongresuak aldarrikatu aurretik, beste izateko modu bat, enpresak kudeatzeko beste modu bat, aurrerakoia eta bidezkoa posible zela erakutsi zuena. Ikuspen hori bururatu eta bere konpainian bertan ezarri zuen, hau da, "Chocolates Bilbainos" (CHOBIL) konpainian.

Agirrek aurrea hartu zion bere garaia. Europar Batasunak bide hori jarraitu behar du gizarte mailan. Aurrea hartu behar du eta baldintzak sortu behar ditu europarrak lanbide-trebezia berrietan prestatu daitezzen beren bizitzan zehar, inor bidean ez geratzeko gizarte-babes moduan.

2.1.- Talentuan, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia produktiboaren aldeko apustua egingo duena

- › Banaketa-justiziaren ariketa hori martxan jartzeko, lehenik, ekonomia produktibo bat izan behar da, hau da, garapen jasangarriko eta irmoko eredu bat, ondasunen ekoizpena eta eskatutako kalitatezko zerbitzuen prestazioa ahalbidetuko duena, eta gertakariei aurrea hartzeko gai izango dena, berrikuntza ezarri.
- › Gizarte-ekonomia sustatzea eta langileek konpainien kapitalean parte hartzea, ekintzaitzak lurraldean fintzeko, talentua sustatzeko eta kudeatzeko, erantzukizun sozial korporatiboaren kontzeptua aberasteko eta gizarte-elkarrizketa eta lan-harremanak erabat modernizatzeko tresna eraginkor moduan.
- › Genero-berdintasuna sustatzea eta gazteak sistema produktiboan sartzea, talentua txertatzeko funtsezko faktore moduan, eta ondorioz, lehiakortasuna hobetzea eta lehiakortasun-abantaila izatea genero-arrakala sakonagoak dituzten munduko beste eskualde batzuekin. Diskriminazio positiboko neurriak sustatzea ekonomia, enpresa eta elkarrizketa soziala ardatz moduan erabiltzen duten eremu eta erakunde arloko erabaki-zentroetan berdintasuna ahalbidetzeko.
- › Europako berrindustrializazio-prozesu bat martxan jartzea, berrikuntza babesteko programetan dagoeneko ezartzen diren joerekin batera, lurralde-sinergiak ahalbidetu dituzan zenbait ezagutza-eremutan espezializatutako lurraldeen artean (espezializazio adimentsua) eta sektore estrategikoetan lankidetzara sustatu dezan.
- › Fiskalitatea lehiakortasunaren eta birbanaketaren zerbitzura jartzea. Sozietateen gaineko zergaren tasa harmonizatzea eta tokiko marjinak erabiltzea arlo digitalaren berrikuntza sustatzeko eta klima aldaketaren aurka egiteko. Teknologia-enpresa handien onurak atzemango dituen zerga bat ezartzea, onura horiek sortzen diren tokian. "Planifikazio fiskal erasotzailea"-ren, paradisu fiskalen, saihestearen eta Europako ogasunen arteko lehiaren aurkako lankidetzara, irabazien deslokalizazioa sortzen baitute eta bilketa murrizten.
- › Zerga-pizgarriak eta finantziarioa, Europar Batasunak bere BPGd-ren % 3 ikerketan, berrikuntzan eta garapenean erabil ditzan, egun munduko beste eskualde batzuen aurrean dugun aldea gainditzeko, alegia, AEBren edo Japoniaren aurrean. Horizonte programaren baliabide erabilgarriak 120.000 milioira arte handitzea.
- › Etorkizuneko funtsezko sektoreetan lan egiten duen Europako industria garatzeko estrategia izatea; sektore horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke: ekonomia digitala, adimen artifiziala, sektore aeronautikoa, ontzigitzako teknologia, deskarbonizazioa, nekazaritzako elikagaien sektorea edo ekonomia berdea. Sektore horiek "estrategiko" moduan aitortzea Europar Batasunarentzat.
- › Merkatu digital eskuragarriaren batasuna osatzea bai kontsumitzaileen zein sektore produktiboaren eta zerbitzu-sektorearen kasuan. Funtssezko azpiegituren inbertsioei lehentasuna ematea eta negozio berrien inkubagailuak ahalbidetzea. Legeriaren ezarpenean aurrera egitea datuak babesteari eta jabetza intelektualaren eskubideei dagokienez, eta eremu horiei ezarri beharreko legeriaren ebaluazioa egitea denboran eta forman.
- › Arreta berezia ematea zibersegurtasunaren garapenera eta funtsezko azpiegiturak babesteari, Europako Agentzien sare bat sortuz, esperientziak eta praktika onak partekatu ditzan, alertak trukatu ditzan eta sektore publikorako eta pribaturako babes-zerbitzuak garatu ditzan.
- › Energia- eta finantza-merkatuen batasuna osatzea, konpainiek merkatu horiek hornitzaile edo erabiltzaile moduan eskuratu ahal izateko baldintzak harmonizatuz. Tarifa-aldeek barne-merkatuaren lehia librea aldatzea saihestea.
- › Energia-konexioak bultzatzea, bereziki herrialde periferikoetan, eta horien interkonezio mailek EBk 2020rako ezarritako minimoak lortzen ez dituztenean.
- › Europako antidumping legeriak eskaintzen dituen aukerak aktibatzea eta hobeto erabiltzea, kontsumitzaileentzako gure estandar sozialak, ingurumenekoak edo segurtasunekoak betetzen ez dituzten produkzioak Europako merkatuan sartzea prebenitzeko.
- › Europako interes estrategikoak edo funtsezko balioak urratzen dituzten enpresak zehatzea, eta Europako lehentasun bat ezartzea zenbait eremu estrategikorako kontratazio-merkatuetan, gure industriako lehiakideek munduko beste eremu batzuetan ezartzen dituzten moduan.
- › "Europa Sortzailea" programa berrindartzea, bere jardueraren eremua Europako hizkuntza gutxituen produkzioetara gehiago irekiz, eta bere kudeaketa-arloa babestuz, baita sektore kulturala, zinemakoa eta ikus-entzunezkoa ere.

- › Europako “kalitatezko turismoa” zigilua garatzea, hori eskuratzeko baldintzak homogeneizatuz, eta kultura-, gastronomia-, historia- edo natura-ondarearen kudeaketa jasangarriarekin lotutako jarduerak edo esperientziak lehenetsiz.
- › Nekazaritza Politika Bateratua (PAC) egonkortzea, belaunaldiaren arteko txandaketa ahalbidetzeko; eta emakumeek lehen sektorean betetzen duten zeregina aintzatestea, nekazaritzako emakumearen estatutu baten bidez.
- › Egungo mugarrak mantentzea (laguntzak eta nekazaritza-garapena), eta hirugarren mugari bat sortzea, EBren eta agintaritza eskudunen artean kofinantzatuko dena, merkatuen krisialdiaren aurrean laguntza emateko.
- › PACaren kudeaketa-arauetan malgutasuna mantentzea, eskualdeko berezitasunetara egokitu daitezen, horren bidez programa horren birnazioalizazioari aterik ireki gabe. Bereziki nabarmentzea nekazaritza-garapeneko programak eta despopulatzearen aurkako ekintzak.
- › Banaketaren eta asoziazionismoaren kalte laburrak suspertzea, lehen sektoreko ekoizleek, nekazariak eta arrantzaleek balio-katean duten posizioa hobetzeko. Produktuen kalitate- eta bereizketa-politiken garapena sakontzea, jatorri-deituren eta beste hainbat labeling-politiken bidez. Arrantzaren kasuan, jatorrizko etiketak eta arrantza jasangarriko praktiken ziurtagiriak ezartzea.
- › Hirugarren herrialdeekin arrantza-akordioaren politika mantentzea, baita arrantza-politika bateratuaren egungo kanpoko dimentsioa ere, tokiko komunitateetan garapena sustatzeko, eta Europako flotarentzako arrantzategiak mantentzeko. Neurri horiekin eta beste batzuekin borrokatzea, hirugarren herrialdeetatik jasotako inportazioen kontrola egiteko, legez kanpoko, aitortu gabeko eta arautu gabeko arrantzaren aurka.
- › Arrantza-flotaren deskarbonizazioa babestea, itsasontzien segurtasun-baldintzak hobetzea eta profesionalak prestatzea belaunaldi arteko txandaketa ahalbidetzeko. Arrantza-komunitateen errenta-iturriak dibertsifikatzea, kostaldeko komunitateen ezagutzaren, ondarearen, gastronomiaren edo bitarteko fisikoaren kudeaketa jasangarriarekin lotutako jarduera berriak, negozioak eta zerbitzuak sortuz.
- › Akuikultura, berrikuntza eta arrantzarako praktika jasangarriak sustatzea. Aisialdiko arrantza kontrolatzea, jarduera horrek kuotei edo arrantza-flota profesionalen komertzializazio-aukerei eragiten dietenean.
- › Arrantza-kuotak finkatzeko gardentasuna izatea urte anitzeko kudeaketa-planen bidez, zeinak ebidentzia zientifikoetan oinarritzen baitira, eta non Europako Parlamentuak Lisboako Tratatuari esleitzen dizkion ko-erabakitasun eskumenak ezarri ditzakeen.
- › Eskualde berezien egoera mantentzea eta egoera hori sakontzea eskualde ultra periferikoen kasuan. POSEI arrantza-politikara zabaltzea, eta arreta berezia ematea Europako eskualde horietako herritarrek jasaten dituzten mugikortasun-arazoei.
- › Eskualde horiei parte hartzeko mekanismo bat eskaintzea merkataritza- eta arrantza-akordioak negoziatzean, baldin eta eremu horietako ekoizleei, merkatariei eta eragileei bereziki eragiten badie.
- › Finantziario-plan berezi bat sortzea energia-arloko eta ekonomia zirkularreko ekintzaitzeta berritzaileentzako, ekimen horiek eskualde ultra periferikoetan asmatzen eta garatzen direnean.

2.2.-Enplegua eskubideekin. Osasuna, pentsioak eta hezkuntza bermatuz

Gaizki araututako globalizazioaren, zenbait estatu-kidetan asko hobetu daitezkeen lan-legerien, “lankidetzak-ekonomia” izeneko moduko hainbat fenomeno agertzearen, eta zenbait “ekintzailek” batzuetan beren langileekiko izan dituzten jarrera ez oso etikoen ondorioz, enpleguaren desarauketa sortu da, Europa mailan aurre egin behar zaiona. Era berean, pertsonen mugikortasuna erraztu behar da. Izan ere, egun, bizi osorako lana hainbat lanekin osatutako bizitza bihurtu da. Ingurune horretan, lan-merkatuan lan-baldintza bidezkoekin sartzea babestea eta babes sozialeko eta gizarteratzeko neurriak garatzea Europako mugari sozialaren ardatzak dira.

Zorionez, amaitzear dagoen europar legeria honetan, Europako proiektuaren nortasun-adierazgarri horrenganako interesa eta jakin nahia berpiztu dira. Orain dela urte eta erdi,



azkeneko hogei urte hauetako lehenengo gizarte-gailurra egin zen Göteborgen, eta dagoeneko 2017ko azaroan, gizarte-adierazleak diseinatu ziren. Gizarte-mugarria Europako seihilekoaren etapa bakoitzean ageri da; aitzitik, lehen, egonkortasuna eta austeritatea nabarmentzen ziren.

Eboluzio hori finkatzeko, honako hauek defendatuko ditugu hurrengo legegintzaldian:

- › Babes sozialeko Europako sistema bat finkatzea, Estatu bakoitzaren erosteko ahalmenera egokitutako babes sozialeko, gizarte segurantzako, osasuneko eta hezkuntzako baldintza minimo batzuk ezarriko dituen. Neurri horrekin konbergentzia-estrategia bat garatzea, pertsonak erreskatatu daitezten bankuak erreskatatu diren energia berarekin, eta dumping soziala saihestu dadin Europar Batasunaren barruan.
- › Irizpide homogeneousak ezartzea gutxieneko soldata eta gizarteratzeko errenta finkatzeko, helburua izan behar dutenak hartzaileei bizitza duina bermatzea, eta lanbide-biziklapena eta lan-merkatuan sartzea ahalbidetzea.
- › Ezkutuko ekonomia, azpi-enplegua eta lan-prekarietatea errotik ateratzeko Europako plana egitea, luze eta zabal ezarri lan-baldintza gardenen eta auresangarrien gainean oraintsu onartutako zuzentarauaren printzipioak, eta Europako Lan Agintaritza martxan jarri.
- › Segurtasun sozialeko sistemak koordinatzea estaldura formalak eta eraginkorrak Europar Batasunaren lurralde osoan bermatzeko, eta estaldura horiek lanen artean eta lan horiek gauzatu diren estatuen artean transferitzea. Leihatila bakar digitala izatea, gizarte-segurantzako kotizazioetarako eta zergetarako.
- › Gazteen berme-programaren zuzkidura bikoiztea, eta programa horren kudeaketa estatu gehienetako laneko politika aktiboetan, gizarte-berrikuntzan eta berdintasun-politiketan eskumena duten eskualdeetara zabaltzea. Soldata-arrakala debekatzea, bereziki genero-arrazoiekin lotzen dena, eta barne merkatuko lehia libreari eragin diezaiokeen baldintzen artean txertatzea.
- › Europako Gizarte Funts Plus berriaren esparruan programa bereziak txertatzea elkarrizketa soziala eta langileek enpresen kapitalean parte hartzea sustatzeko.
- › Globalizaziora Egokitzeko Funtsa prebentziozko moduan aktibatzea, biziklapen eta birkolokazio gaitako jarduerak funts horien irabaziaz eskuratzen dituzten pertsonen lan-harremana iraungi aurretik egin daitezten.
- › Tokiko eta eskualdeko agintaritzaren eta zahartze aktiboaren inguruko praktika onen sare bat sortzea. Subsidi-

diariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak errespetatuz, estandar minimo batzuk ezartzea familia-bizitza eta lana uztartzeari eta jaiotza-tasa sustatzeari dagokionez.

2.3.- Iraultza digitala aprobetxatzeko prestakuntza

Digitalizazioaren eta automatizazioaren aroan, ziurgabetasunik handienetako bat zera da, ohiko enplegu eta lanbideak gaitasun, trebezia, eta ahalmen berriak behar dituzten beste enplegu berri batzuetan bilakatu direla. Europako proiektuak aldaketa horiek aurreratzeko eta pertsonak aldaketa horietara egokitzen laguntzeko ahalmena du, etengabeko prestakuntza- eta biziklapen-prozesuen bidez, hori baita bere aukera handietako bat herritarrei erakusteko erabilgarria dela.

Zalantzarik gabe, bokazio tekniko-zientifikoak suspertu behar ditugu; baina era berean, hezkuntza-sistemak ere prestatu egin behar dira datozen aldaketei profil berriekin erantzuteko. Izan ere, aldaketa horiek sormena eta gizatasuna moduko eskumenak ere eskatzen dituzte, produktu, zerbitzu eta ekintzailatza berriak sortzeko.

Gainera, aldaketa horiek mundu ireki batean sortzen dira, non lanbide-jarduera nazioz gairik edo mugaz gairik inguruneetan sortzen den. Gaur, inoiz baino aukera handiagoa dago karrera profesionala jaioterria ez den beste estatu-kide batean egiteko. Horregatik, gaitasun linguistikoak, eta dibertsitatearen arloan aberastasun pertsonala eta profesionala lantzeko beste aukera bat aurkitzeko entrenamendua hezkuntza-sistemak aurre egin behar dion jakin-minen karpeta gorde behar dira baita ere.

Eboluzio hori erkidegoko erakundeen bidez bultzatu daiteke:

- › Goi mailako hezkuntzako eta lanbide heziketako ikasleentzako mugikortasun-programak sustatuz; horretarako, Erasmus Plus programaren funtsak bikoiztu beharko lirateke.
- › Gazteek Elkartasunaren Europako Indarrean parte hartzea sustatuz, tresna ezin hobea baita Europako balioak sustatzeko, eta elkar trukeko beste formula batzuk sustatzeko, zeinari esker kultura-aniztasunaren ezagutza sakona ahalbidetzen baita, baita gizarte-porrotak sortzen dituen arazoena ere.
- › Mugikortasun-neurri horiek osatuko dituzten itzultzeko eta talentua erakartzeko politikak. Gaitasun linguistikoak eta trukeko tresnak garatzea.
- › Europar Batasuna osatzen duten herrialde guztien kulturaren ezagutza-programa, eta hizkuntza gutxiak hizkuntza-aniztasuna babesteko programetan txertatzea.



3.- FEDERALA, ANITZA ETA HERRITARRENGANDIK HURBIL DAGOENA

Europar Batasuneko lema honako hau da: “aniztasunean batuta”. Kontzeptu horri esker, “Europako herritartasuna”-ri buruzko institutua sortu ahal izan da, eta kontzeptu hori “Europako subiranotasunaren” oinarria da; eta Europako federalista guztiok horren aldeko apustua egiten dugu. Batasun horretan ez dago unitate bereizezinik; aitzitik, proiektu batenganako atxikipen libreak eta boluntarioak daude, zeinaren ezaugarria baita dibertsitatea aintzatestea eta errespetatzea. Funtsezko oinarri horren gainean estatu-nazio zaharren logika ari gara behin betiko gainditzen, iraganean gerra eta borroka ankerrak sortu zituenak.

Estatu-kideetan beren dibertsitate propioaz arduratzeko eta hori kudeatzeko gai ez direnak, ezingo dute egonkortasunik eman inposaketek balio ez duten proiektu batean. Zenbait estatu kideetako lurralde-tentsioek ezegonkortasuna sortzen dute, printzipio soil horiez arduratzeko ezintasuna dutelako, eta hori arazo bat da European.

3.1.-Gardentasunean eta parte-hartzean oinarritzen den maila anitzeko gobernantza duena

Tentsio horiek saihesteko eta Europar Batasuna behetik gora eraikitzeko modu ezagun bakarra demokrazia da. Existitzen diren errealitateak aintzatetsi behar dira eta ez gehiengo baztertzailere batek inposatutako legeriekin errealitate horiek apaltzeko tentazioaren aurrean makurtu, eta erabakitzeko prozesuak herritarrengana hurbildu behar dira, Europar Batasunaren irmotasuna eta kohesio soziala eta politikoa hobetu nahi badira. Eta horrek, eraginkortasuna eta efikazia errazten du. Herritarrengana gehien hurbiltzen diren erakundeek funtsezko zeregina beteko dute Europa herritarrengana hurbiltzeko. Horretarako, Europar Batasunak honako hauek egin behar ditu:

- › Subsidiariorotasunaren gaineko goi mailako taldearen ondorioak sakondu behar ditu. Izan ere, ondorio horien arabera, legegintza-eskumenak dituzten eskualdeak Europako legeriaren prozesuan txertatu beharko lirateke, Lisboako Tratatuan eranskin moduan jasotzen den subsidiariorotasun-protokoloa baino mekanismo sendoago baten bidez.
- › Hiru alderdiko elkarrizketak ezartzea Parlamentuaren, Kontseiluaren eta tokiko eta eskualdeko erakundeen artean, beren prozeduren gardentasuna hobetzeko. Eskualde konstituzionalen kontzeptua definitzea, elkartutako eskualdearen estatusa garatzea eta ezartzea, eta eskualde konstituzionalak elkartutako eskualde moduan aintzatestea automatikoki.

- › Lanbide heziketan eta goi mailako hezkuntzan prestakuntza duala sustatzea. Estatu-kideetan eredu dual bat ezartzeko konpromisoa hartzea, eskualdeko agintaritzen parte-hartzearekin eta protagonismoarekin batera. Praktika onen koordinaziorako eta trukerako erakundea, eta lan-munduan sartzeko programa esperimentalen ebaluazioa egitea.
- › Bikaintasun-campusaren eta mugaz gaindiko campusaren eraketa bultzatzea, kultura-trukea sustatzeko. Administrazio-, lege- eta hizkuntza-oztopoak eta beste edozer eratako oztopoak kentzea, mugaz gaindiko lan-arroak eta langileen mugikortasuna sustatzeko.
- › Gaitasun eta trebezia berrien Europako agenda, ondorengo hauekin lotutako enplegu-hobi eta negozio-aurkera berriekin lotzen dena: automatizazioa, big dataren esplotazioa, ekonomia zirkularra, birziklapena eta berreskualdatzea, energia-iturri berriak, deskarbonizazioa edo klima-aldaketaren aurkako ekintzak.
- › Lan-bizitza osoan etengabeko ikasketaren eta birziklapenaren kontu pertsonal bat sortzea, pertsonen ezagutza, prestakuntza eta esperientzia enplegu-harrobi eta -eskaintza berriekin konektatzeko. Prestakuntza-aukerak hautatzeko laguntza-sistema adimentsua izatea, baita kontuko titularraren profilerak egokitutako enplegu-aurkera berriak aukeratu ahal izatea ere.

- › Europako Batzordeak lurralde-boterea estatu-kideetan banatzearen ondorioak bere gain hartzea, eta botere horren ondoriozko erakunde konstituzionalak aintzatestea. Horrek erakundeen ekintza orokorren bidez Justizia Auzitegiaren aurrean errekurtsua aurkezteko gaitasuna ekarriko luke.
- › Europako jurisprudentziarekin bat eta eragin guztietarako, araudigintza-, erakunde- eta ekonomia-independentzia duten ogasun guztiak Europako ogasun moduan aintzatestea, eta baldintza horrekin ECOFINean modu koherentean parte hartzeko aukera izatea, baita koordinazio- eta prestakuntza-tresnetan ere, esaterako Fiscalis programan.
- › Luxenburgoko auzitegiak onartutako subiranotasun fiskala duten Europako ogasunen konpromisoak, egintzak eta egoera ekonomiko-finantzarioa onartzea, esaterako, Euskadirena, Nafarroarena edo Azoreetakoa. Egoera horiek kontuan izan beharko liriteke, defizit-arauaren balizko ez betetzeak edo estatu-kideen bateratze-irizpideak ebaluatzeko orduan, bereziki zehapenak ezartzeko, kaudimen mailak kalkulatzeko edo arrisku-primak kalkulatzeko orduan.
- › Eskualdeen batzordea Europar Batasuneko erakunde bihurtzea, kontsultaren menpeko gaiak zabalitzea, eta zenbait gairen gaineko irizpenei indar loteslea ematea. Berriazko foro bat ezartzea tokiko indarrentzako.
- › Eskualde konstituzionalei edo baldintza bereziak dituzten eskualdeei, esaterako, eskualde ultra-periferikoei, legegintza-ekimena gauzatzeko gaitasuna aintzatestea; izan ere, eragiten dieten gaiei dagokionez, eskualde konstituzionalen izaera izan beharko lukete.
- › Estatu-kideen borondatea eratzeko barne-sistema izatea, egitura konplexua dutenen konstituziozko eskualdeek bertan parte har dezaten bermatzeko. Beren eskumenei eragiten dieten Kontseiluetan presentzia zuzena izatea.

3.2.- Eredu federal baterantz doana, Europako dibertsitate nazional, instituzional eta kultural guztiak gogoz barne hartzen dituen

Aniztasunean bateratuta izateak esan nahi du Europako gutxiengoaren eskubideak ere onartzen direla, gehiengoaren balizko gehiegikeriengandik babesten direla. Izan ere, eskubide horiek beren dimentsioan babesteaz gain, erakundeetako hainbat tresnetan eta jarreretan babesten dira, eta horrek sarritan agintaritzaren gehiegikeria eta funtsezko eskubideen urraketa ahalbidetzen du. Hori bereziki nabarmena da hizkuntza-eskubidearen eremuan, estatu-kide askoren

aurretik existitzen ziren nortasun nazionalak aintzatestean, baita aniztasun hori aintzatesteko Konstituzioak egiten dituen aurreikuspenak errespetatzean ere, estatu-kide batzuk sarri urratzen dituztenak. Disfuntzio horiek eragina dute Europar Batasunaren ibilbide onean. Arazo horiek konpontzeko, honako hauek falta dira:

- › Europako gutxiengo nazionalaren definizio argi bat eta horretarako Europako estatus juridiko bat.
- › Legegintza loteslea, gutxiengo horien kideen hizkuntza-eskubideak eta nortasun nazionalaren eskubidea babesteko dituen. Legeria horrek hizkuntza gutxituen babesa bermatu behar du, baita koofizial den tokiko hezkuntza-sistemetan komunikazio-hizkuntza moduan erabiltzea onartzea ere, diskriminazio positiboko neurriak onartu behar dira hizkuntza hori babesteko eta horren erabilera sustatzeko, eta lan-arloko hizkuntza moduan onartu behar dira, gutxienez Europako erakundeen osoko bilkurretan. Era berean, hizkuntza horiek aintzatesi egin behar dira Europako funtzio publikoan sartzeko garatzen diren meritu-lehiaketetan.
- › Europako gutxiengoaren gaineko Nagy txostenean, Europar Parlamentuak gehiengo osoarekin onartu zuenean, txertatutako gomendioak martxan jartzea. Europako gutxiengoek eskubidea dutela aintzatestea, txosten horren edukien arabera, gutxiengo horien historia eta kultura-ondarea hezkuntza-sistemaren bidez zaintzeko eta transmititzeko.
- › Europa mailako kanpainak egitea, hizkuntza koofizialen erabilera bultzatuko eta prestigiatuko duten Europako truke-programa guztietan, kultura-sormena pizteko programetan, "Herritarrentzako Europa" izeneko kontzientzia zibikoa parte-hartzailea babesten duten programetan edo Europako Kulturaren hiritartasunean, Donostiako kultura-hirian izan zen esperientzia arrakastatsuekin bat.
- › Dibertsitaterako komisario bat izatea, bere eskumenei zorroan gai hau txerta dezan, baita gutxiengoaren gaineko Europako legegintza hertsiki betetzen dela kontrola dezan ere. Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunak gutxiengoaren gainean dagoeneko jasotzen dituen aurreikuspenak betetzen direla kontrolatzea.
- › Argibide-zuzentarau bat izatea, arbitrajeak ahalbidetu dituzten elkarrizketaren bidez konpon daitezkeen estatu-kideetan enkistatzen diren lurralde-arazoak. Ebazpenerako mekanismo bat hitzartzea, autogobernuko erakunde bidez, dagokien estatu-kidearekin duten harremanaren estatusa birdefinitzeko eta erabakitzeko borondatea adierazi duten, eta hala dagokionean, EBn jarraitzea

erabaki duten erkidegoek estatu-kidea izateari uko egi-
tea erabakitzen dutenean uko egin ahal izan diezaioten,
modu legalean eta hitzartuan eta herritarrei kontsulta
eginez.

- › Prozedura sinplifikatu bat izatea sezesio-prozesu baten
ondoriozko estatu berri batek Europar Batasunean jarrai-
tuko duela bermatzeko, prozesu hori aipatu argibide-zu-
zentarauan aurreikusitako bidetik egin bada.

4.- POPULISMOAREN, DEMAGOGIAREN ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO ANTIDOTOA

Norbere aniztasuna errespetatuz eta gure herrietan eta hi-
rietan integratuz ari denaren dibertsitatea onartuz aurrera
egiten badugu, hau da, bizikidetzaren, erantzukizunaren eta
gizalegearen aldeko apustua egiten badugu, urrats erraldoi
bat egingo dugu, baita gure Europar Batasunari erasotzen
dioten zenbait arrisku prebenitzeko orduan ere.

Horietako bat, dagoeneko ikusi dugun moduan, estremis-
moa da, populismoa. Hau da, gezurra modu immoralean
erabiltzea eta herritarren beldurrak eta estutasunak manipu-
latzea, botere-kuotak lortzeko, edozer preziotan. Praktika ho-
rrekin batera erradikalizazio-prozesuak sortzen dira. Izan ere,
ziurgabetasunaren aurrean segurtasuna eskaintzeko erabil-
tzen diren sinplekeriek gure buruaren gaineko kontzeptu bat
(aukeratuak, onak izatea) sustatzen dute beti besteen gai-
nean, eta beste horiei, batzuetan, eskubide berak dituzten
gizakiak direla ukatzen zaie.

4.1.- Herritarrentzako erabilgarria. Irtenbide soilak, dagoe- neko ezagutzen direnak eta arazo konplexuak konpontzeko porrot egin dutenak saltzen dituen populismoaren aurkako bakuna

Gainera, proposatutako irtenbide horiek esperimendu ge-
nituen dagoeneko European. Gerra, borroka eta pobrezia
sortu zuten. Gaur batzuk irtenbide moduan aurkezten di-
tuzten horiek ez digute mundu garbiago bat itzuliko, non
ekonomia zirkularrak hazkunde- eta fiskalitate-paradigmak
eta kontsumo-ohiturak aldatuko dizkigun. Horiek ez digute
aukerarik emango etxetik klik bakar bat eginez gure bidaia-
aukerak egiteko, lehenengo kilometrotik azken kilometrora
arte. Aberastasuna ez dute hobeto banatuko.

Hormek ez dute ahalbidetzen denok merkatuan baldintza
berekin jokatu dezagun, eta ez dute berrikuntza eta gazteen
talentua sartzen uzten, haien talentua lehiatzeko garrantzi-
tsuagoa izan dadin energia edo dirua eskuratzeko ditugun
baldintzak baino. Ez dute justizia soziala fabrikatzen. Aitzitik,

erradikalizazioa sortzen dute. Izan ere, elkartasunik ezak edo
injustiziak sortzen dituzten sute guztien kea arnastea ez dute
galarazten. Nahiz eta ke horiek urrutikoak diruditen albis-
tegiatan. Izan ere, keak hormen gainetik bidaiatzen du, eta
ke horiek erantzunak izaten dituzte gure artean atentatuen
forman, ziurgabetasun-forman; izan ere, European izandako
atentatu horien % 70a hemengoak moduan sentitzen dire-
nak burutu izan dituzte, eta ez estremistek fabrikatzen duten
"beste" baztertzailak eta marjinezailak. Horregatik:

- › Europa mailan erradikalizazioa saihesteko lan egiten du-
ten egiturak indartzearen aldeko apustua egiten dugu.
Erradikalizazioa prebenitzeak esan nahi du aztertu behar
dela marjinezailak eta pobrezia nola adoretu dezakeen
indarkeria eta gorrotoa gure lurraldean. Era berean,
erradikalizazioa adoretzen duten eta indarkeriaren eta
terrorismoaren erabilera bultzatzen edo babesten duten
materialen ekoizpenaren eta zirkulazioaren gaineko kon-
trolla nabarmendu behar da.
- › Albiste faltsuak kontrolatzeko sistema eraginkorra gara-
tu behar da, eta horren autoreak salatu eta ezagutarazi.
Europar Batasunetik kanpoko potentzien esku-hartzeak
saihestu behar dira hauteskunde-prozesuetan eta barne
politika prozesuetan, eta Europar Batasunaren hiruga-
rren estatuak Europako alderdi politikoak finantzatzea
debekatu behar da.
- › Europar Batasunak konpromiso handiagoko ahalegina
egitea nahi dugu Europako memoria demokratikoa ber-
reskuratu dadin, eta Europako erregimen totalitarioak
eratzeko estremismoak izan zuen eraginaren erabilera
pedagogikoa egin dadin. Hori da biderik ziurrena trage-
dia horiek errepikatzea saihesteko.
- › Europako mekanismo horrek zaindu beharko luke iraga-
nean erregimen totalitarioek gauzatutako gizateriaren
aurkako krimen ezein zigorgabe gera ez dadin, eta arra-
zismoaren eta xenofobiaren aurkako erabaki-esparruen
printzipioak bete daitezten, zeinak behartzen baitute erre-
gimen mota horien gorespenak, apologia eta banaliza-
zioa zigortzera eta jazartzera.
- › Memoria demokratikoa berreskuratzeko eremuan lan
egiten duten erakunde zibikoek jarduerak gehiago ba-
bestu behar dira, bereziki Europako hegoaldea erasotu
zuten erregimen totalitarioen gainekoa. Horiek nazis-
moaren eta estalinismoaren biktimen tratamendu eta
aintzatespen bera espero, merezi eta behar dute.
- › Benetako inteligentzia-zerbitzu europarra sortzea, era-
so terroristak prebenitzeko eta zapaltzeko eta horren
arduradunak eta eragileak atxilotzeko. Organo hori da-
tuak trukatzeko foro etengabekoa eta automatizatua izan

behar da, ikerketa paneuroparrak sustatu behar ditu, eta gai horretan eskumena eta ezagutzak dituzten agentzia eta segurtasun-erakunde guztietan erabilgarri dagoen ezagutza eta baliabide guztiak aprobetxatu behar ditu. Horien artean eskualde konstituzionalak poliziak erabat barne hartzea defendatzen dugu; izan ere, horietako batzuek, esaterako Ertzaintzak edo Mossos de Esquadra, gai horren gainean ezagutza eta trebezia berezia dutela egiaztatzen dute.

- › Terrorismoaren Europako definizioa berrikusi beharko litzateke, definizio anbiguoak kentzeko, horiek arbitrariotasun izugarri handiak sortu baitituzte, zenbait estatu-kideetara itzuliz. Terrorismoaren aurkako politika eraginkor bat gidatu behar duen oinarriko printzipioa ikusirik, segurtasunaren eta funtsezko eskubideen errespetuaren artean behar den oreka birdefinitzea.
- › Kultura arteko elkarrizketa eta integrazioa sustatzea. Polizia-ekintzarekin batera, kohesio, gizarteratzeko eta erlijio arteko eta kultura arteko dibertsitatearen kudeaketa positiboa bateratu behar dira, hezkuntza-estrategiekin batera, erradikalizazioa prebenitzeko eta terrorismoak bere biktimen gain dituen eraginak zabaltzeko.
- › Biktimen zuzentzarauaren aurreikuspenak sakontzea terrorismoaren biktimen kasuan. Kosturik gabe eta ulermenberme guztiarekin zigor-prozesuetan sartzea bermatzea. Biktimei laguntzeko egituretan sartzeko leihatila bakar digital bat ezartzea, erasoak Europako edo zer tokitan izan arren. Justiziaren profesionalen eta polizia prestakuntza ematea biktimei laguntza-programak eskuratzeko orientazioa eman diezaien.
- › Segurtasun-politika bateratuaren kanpoko dimentsioa garatzea, kanpoko mugen prebentzio- eta kontrol-lanak sakonduz, pertsonak trafikatzeko sareen gaineko ikerketa areagotuz, eta legegintzaldi honetan hartutako akordioak garatuz, hirugarren herrialdeetako gatazka-kasuetan eraginkortasunarekin esku hartzeko gaitasuna duen euro-indar bat sortze aldera.

4.2.- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren lurraldea

XXI. mendea berdintasunarena, estereotipoen eta emakumeen aurkako indarkeriaren amaierarena izan behar da, justizia, berdintasuna eta funtsezko eskubideak bete daitezten, baina gainera, baita lehiakortasun-arrazoi hutsengatik ere. Berdintasuna lortzea ez da emakumeen kontu bat; gizateariaren erantzukizuna da. Gizarte bidezkoago bat bultzatuko du, baina gainera, gizonei ere lagunduko die uztartze-gaitan erantzukizunengandik eta afektuak erabat disfrutatzea-

rengandik alde batera mantendu izan ohi dituzten roletik askatzen. Emozio-adimenaren bultzada sustatuko du, eta garapen-tresna harmonikoagoa eta gatazka prebenitzeko da berdintasuna. Desberdintasuna deuseztatzeko, honako hauek behar ditugu:

- › Europako Berdintasunaren institutuak berdintasun-gaiaren gainean duen zeregina berrindartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako aurrerapenetan, estatu-kideen arteko praktika onen koordinazio eta truke-tresna moduan.
- › Genero-orientazioa Europako estatistikan eta aurrekontuetan sartzea. Irizpide estatistikoak homologatzea berdintasun-politiken genero-indarkeriaren gaineko estatistiken jarraipena eta ebaluazioa hobetzeko.
- › Estatu-kide guztiek Istanbulgo Hitzarmena berrestea. Estatu-kide guztiek beren legerian eta aurrekontuetan hitzarmenaren helburuak betetzea bermatuko duten lege-irizpideak eta neurriak integratzea.
- › Estatu-kideen legeria etengabe harmonizatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren definizio partekatua eta horren zigor-tratamendua emateko.
- › Berdintasunaren aldeko klausulak izatea Europako kontratazio publikoan, eta diskriminazio positiboko neurriak hartzea, Batasuneko erakundeen, instituzioen eta agentzien zuzendaritzetan parekotasuna izan dadin.
- › Kanpainak egitea Europa mailan desberdintasuna sustatzen duten eta emakumeen aurkako indarkeria ahalbidetzen duten estereotipoak erazteko.
- › Zaintza koordinatua egitea, emakumeen eta haurren sexu-esplotazioa saihesteko eta gizakiak trafikatzeko sareak zapaltzeko, negozioren horrek irabaziak ematen baitie.
- › Uztartzearen gaineko araudi guztia, hain zuzen ere, tratatu txarren eta genero-indarkeriaren biktimei laguntza eta babesa emateari buruzkoa, estatu-kide guztiei bidaltzen zaiela bereziki kontrolatzea. Genero-indarkeriaren arazoaren ondoriozko eraginak izan dituzten bizikidetzatako adingabekoei babes berezia ematea. Babesteko Europako aginduaren erabilera zabaltzea eta sustatzea.

» EUROPAN ZUK ERE MUGIARAZTEN GAITUZU

Beraz, Europarako programa batu dugu, Euskaditik, Kanarietatik, Galiziatik, Valentziatik edo Balearretatik eraikitzen jarraitzeko. Izan ere, gure aniztasunaren ekarpena egin nahi diogu proiektu horri, ziur baikaude erabilgarria eta premiazkoa dela.

Europak asko eman digu. Batzuek gaur Europako proiektuaren zenbait lorpen nabarmen paisaiaren parte moduan ikusten dute, beti hor egon izan balira moduan. Baina egia esan, lanean jarraitu behar dugu eta behar diren erreformak egin.

Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoak eta Erromako Tratatuak, alegia, egun Europar Batasuna denaren mugarriak kontinenteko herritarrak txundituta utzi zituen erabilgarriak zirelako. Gerra ezinezko bihurtu zuten; garapen eta babes sozialeko eredu bat jarri zuten martxan, eta ondorioz, mundu mailako erreferentzia bihurtu ginen ongizateari, bakeari eta ziurtasunei dagokienez. Toki askotan imitatu izan duten ereduak izan da, hitz eder asko sortu ditu, eta hitz horiek, behingoz bada ere, egintzen ondorioa ziren eta ez ametsen adierazpena. Segurtasuna sortu zuen, segurtasuna hitzaren adierarik zabalenean. Ia-ia pentsatu genuen esku artean genuenak ia erasoezinak egiten gintuela.

Erosotasun horrek porrotera eraman ditu erakunde eta negozio asko. Adierazpen ezagun bat sortu du: "arrakastarekin hil". Ezerk ezin du iraun tentsiorik, bilakaerarik gabe. Gaur esango genukeen moduan, berrezarpenik gabe. Eta hori da egun Europar Batasunaren gaixotasuna.

Gaixotasun hori gainditzeko, sortzaileen balioak ezarri behar dira berriz ere, norbere beldurrei aurre egiteko. Ulertu behar da, mugiezinak ziruditen zenbait kontzeptu aldatu egiten direla. Pertsonak, egoerak aldatzen direlako. Aurrekari haiek beren partida gaurkoa moduko egoera ziurgabea jokatu zuten, adimenarekin, ausardiarekin, lidergoarekin eta erabakitasunarekin. Gaur ere ahalegin bera egin behar da.

Guk, gure dimentsioaren apaltasunetik, gure bokazio europarraren erabakitasunetik, eta gure ezagutzak eta dibertsitateak proiektu honi ematen dion aberastasunarekin, programa honekin nabarmendu nahi dugu arrakasta-ideia horren aldeko apustua egiten dugula eta horrekin konpromisoa izaten jarraitzen dugula. Izan ere, konpromiso irmoa dugu Europa hobe baten alde lan egiteko.

